

## **BALOREEN MERKATUAREN BATZORDE NAZIONALARI EGITATE GARRANTZITSUA**

**Bilbon, 2015eko uztailaren 23an**

**EUSKALTEL SA**

### **EUSKALTEL ETA R CABLE Y TELECOMUNICACIONES DE GALICIA SA (“R”) INTEGRAZIO-HITZARMEN BATEN OINARRIAK EZARTZERA IRITSI DIRA**

- Euskaltel eta R Cable enpresak integratzeko eta, hala, Espainiako iparraldeko telekomunikazio-operadore lider bihurtzeko hitzarmenaren oinarriak ezarri dituzte bi enpresek.
- Hala sortutako erakundeak 725.000 km inguruko sarea izango luke, etxeko eta enpresako 715.000 bezerori baino gehiagori emango lieke zerbitzua, 570 milioi €-ko pro forma diru-sarrera izango luke eta 265 milioi €-ko EBITDA. Horrenbestez, nabarmen handituko litzateke Espainiako eta Europako merkatuan duen garrantzia, eta, halaber, ondo errotua dagoen eskualdeetako posizionamenduari eta konpromisoari eutsiko lieke.
- R Cableren balioa 1.155 milioi €-an zenbatetsi da (Enterprise Value); haren EBITDA halako 10,9 da hori gutxi gorabehera, Euskaltel burtsara atera deneko balorazioaren antzeko parametroetan.
- Euskaltelek kontraprestazio misto bat eskaini die R Cableren akziodunei: ordainketa nagusia, eskudirutan; gainerakoa, Euskaltelen akzio jaulki berrietan.
- Akziodunek konpromisoa hartzen dute bi enpresen izaera lokala mantentzeko; horretarako, bien markak, egitura lokalak eta kudeaketa-ekipoak mantenduko dira, elementu gakotzat jotzen baitira azken urteetan bi enpresek izan duten arrakastan.
- Euskaltelek eta R-k bi enpresetako jardunbide onenak partekatzea espero dute, eta, halaber, operazio-sinergia garrantzitsuak lortzea, produktuak eskurago izatearen eta produktu, zerbitzu eta edukietarako negoziazio-ahalmen handiagoa izatearen ondorioz, nagusiki; horiek guztiak *due diligence* prozesuan kuantifikatuko dira, eta prozesu hori amaitutakoan jakinaraziko zaizkio merkatuari.
- Hitzarmena bi enpresen Administrazio Kontseiluek baimendu dute, eta *due diligence* prozesua behar bezala —gorabehera nabarmenik gabe— gauzatzearen eta agintaritza eskumendunak onartzearen mende dago. Bi enpresetako Akziodunen Batzarrak ere berretsi behar du operazioa.

#### **Operazioaren zentzu estrategikoa**

Euskaltel SA (“Euskaltel”) eta R Cable y Telecomunicaciones Galicia SA (“R”) enpresa liderrak dira zuntz optikoan eta telekomunikazio-zerbitzu konbergenteetan, hurrenez hurren, Euskadin eta Galizian, eta jakinarazten dute hitzarmen-oinarriak ezarri dituztela bi enpresak integratzeko eta Espainia mailan eta Europa mailan lider izango den telekomunikazio-operadore bat sortzeko, zeinak gutxi gorabehera 725.000 km-ko sare konbinatu bat izango bailuke eta etxeko eta enpresako 715.000 bezerori baino gehiagori emango bailieke zerbitzua, 570 milioi €-ko pro forma diru-sarrerak izango bailituzke eta 265 milioi €-ko EBITDA.

Operazioa mugarri berri eta garrantzitsu bat da bi enpresen historian, Espainiako telekomunikazioen merkatuan finkatzeko prozesuan. Espainiako iparraldean lider den operadore bat sortuz, sendotasuna, eraginkortasuna eta hazteko ahalmena dakartzkio operazioak erakunde konbinatuari.

Akziodunek konpromisoa hartzen dute bi enpresen izaera lokala mantentzeko; horretarako, bien markak, egitura lokalak eta kudeaketa-ekipoak mantenduko dira, elementu gaketzat jotzen baitira azken urteetan bi enpresek izan duten arrakastan.

Euskaltelek eta R-k antzeko ezaugarri asko dituzte maila kulturalen eta negozio-estrategiarenean, eta etorkizunean negozio-plan bateratu bat arrakastaz betetzeko bermea dira. Bi enpresek erro sakonak dituzte beren merkatuetan; bezero-oinarri sendoa dute, ahalegin handia egin baitute haiei kalitate handia, bezeroentzako arreta-zerbitzu elebidunak (gaztelaniaz, euskaraz eta galegoz) eta produktu-eskaintza berdingabe eta berritzailea eskaintzeko.

Bezero-oinarriaren balioa maximizatzea da bi konpainien strategiaren ardatza; horretarako, bakoitzak bere merkatuan duen lidergoan, bezeroen leialtasunean, jabetzan daukaten zuntz optikoaren sarean eta markaren balio handian oinarrituko dira, eta, hala, merkatuko kuotak finkatuko dituzte, eta hazten lagunduko die horrek. Nola Euskaltelek hala R-k mugikortasuna jo dute estrategia horretarako gaketzat; horregatik, abiadura handiko sarbidea nonahi eskaintzen diete bezeroei zuntz optikoko sarearen bidez, WIFI sarbideen bidez eta mugikorreko eskaintza erakargarri baten bidez (maiztasun propioak dauzkate 2,6 GHz-eko LTE/45 bandan).

Euskaltelen eta R-ren konbinaziotik sinergia garrantzitsuak sortzea espero da, zeinak bi konpainietako zuzendaritza-taldeek xehe aztertuko baitituzte eta, *due diligence* amaitutakoan, merkatuari behar bezala jakinaraziko baitzaizkie. Hauek izango dira sinergia-alorrak, besteak beste: (i) produktu, zerbitzu eta edukiei buruzko negoziazioak egiteko aukera gehiago eta ahalmen handiagoa; (ii) sistemak eta teknologiak guztion eskura jartzea; (iii) hornitzaileekiko kontratu-harremanak optimizatzea; (iv) hazkunde-estrategiak harmonizatzea.

Bi enpresetako presidentek, Alberto García Erauzkin eta Honorato López Isla, pozik agertu dira lortutako hitzarmen-oinarriarekin, eta azpimarratu dute operazioak garrantzi estrategiko handia duela telekomunikazioen sektorean: *“Operazioak zentzu estrategiko handia du, funtsezko urrats bat baita Espainiako iparraldeko kable bidezko operadore gisa sendotzeko, eta horrek indarra, eraginkortasuna, sinergia partekatuak eta hazteko ahalmena dakarzkio konpainiari. Hala, konpainia honen tamaina eta merkatuan duen garrantzia handitu egingo dira, eta, aldi berean, erro sendoak dauzkan eskualdeetan, Euskadin eta Galizian, sendotasunari eutsiko dio”*.

### **Hitzarmenaren ezaugarri nagusiak.**

R Cableren balioa 1.155 milioi €-an zenbatetsi da; haren EBITDA halako 10,9 da hori gutxi gorabehera, Euskaltel burtsara atera deneko balorazioaren antzeko parametroetan.

Gaur egun R Cableren akziodun direnak Euskaltelen akziodun izatera pasatuko dira, eta Kutxabankek akziodun gisa irauteko dauzkan konpromisoari atxikitzea onartu dute (Kutxabankek konpainiaren % 25eko partizipazioa mantenduko du).

### **Exekuzio-egutegia**

Hitzarmena bi enpresen Administrazio Kontseiluek baimendu dute, eta *due diligence* prozesua behar bezala —gorabehera nabarmenik gabe— gauzatzearen eta agintaritza eskumendunak onartzearen mende dago.

## **Euskaltel lider da Euskadin, telekomunikazio-zerbitzu konbergenteetan**

Euskaltelek Bizkaiko Parke Zientifiko eta Teknologikoan du egoitza. Nagusiki, paketeetan integratuta eskaintzen ditu zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoan, etxeko bezeroentzat eta enpresentzat: abiadura handiko banda zabala, ordainpeko telebista eta telefonia finkoa eta mugikorra.

Euskaltel banda zabaleko eta ordainpeko telebistako operadore liderra da (bezero-kopuruari dagokionez), eta Euskadin gehien hazi den telefonia mugikorreko zerbitzu-hornitzailea da (linea-kopurutan). 2015eko martxoaren 31n, Euskaltelek 918.120 zerbitzu ematen zizkien (kontrataturako zerbitzuak edo diru-sarrerak ematen dituzten unitateak; ingelesez, RGUak) etxeko 295.360 bezerori. Euskaltelek autonomoei eta negozio txikiei (ingelesez, SOHOei), ETE-ei, kontu handiei eta sektore publikoko erakundeei ere eskaintzen dizkie produktuak eta zerbitzuak; baita handizkariei ere.

Euskaltelek azken belaunaldiko zuntz optikozko sarea du, inbertsio gehigarri nabarmenik behar ez duena, eta Euskadiko etheen % 85i sarbidea ematen diena. Horrek abantaila ematen dio Euskalteli lehiakideen aurrean, zerbitzuak merkatuan jartzeko denborari (*time-to-market*) eta kostuei dagokienez. Gainera, sozietateak telefonia mugikorreko zerbitzuak ematen ditu, Orangerekin duen operadore mugikor birtualaren (OMB) hitzarmenaren bidez, eta 4G/LTE lizentzia du Euskadin.

## **R Galiziako kable bidezko telekomunikazio-operadorea da**

R-k Coruñan du egoitza, eta Galiziako telekomunikazio-operadore liderra da; telefonia finkoko, telefonia mugikorreko, abiadura handiko banda zabaleko eta ordainpeko telebistako zerbitzuak eskaintzen dizkie etxeko eta enpresako bezeroei Galizian.

R 1998an sortu zuen bertako inbertitzaile-talde batek, eta, ordutik, Galiziako operadore lider izateraino hazi da. R, zuntz optikoaren sare propioarekin, 935.000 etxe eta enpresa-lokaletara iristen da Galizian. R ezaguna da oso kalitate-maila oneko zerbitzua eta bezeroarentzako arreta ematen dituelako.

R-k azken belaunaldiko zuntz optikozko sare propioa du, beste inbertsio esanguratsurik behar ez duena eta Galiziako etheen eta enpresen % 63ra iristen dena. Gainera, sozietateak telefonia mugikorreko zerbitzuak ematen ditu, Vodafonerekin duen operadore mugikor birtualaren (OMB) hitzarmenaren bidez, eta 4G/LTE lizentzia du Galizian.

Euskaltelek hitzaldi bat emango die analistei eta inbertitzaileei datorren asteartean, 2015eko uztailaren 28an, 16:00etan, eragiketari buruzko xehetasunak azaltzeko.

## **Komunikabideentzako harremanetarako datuak:**

Komunikazio Saila

Euskaltel

+34 94 401 12 29

[komunikazioa@euskaltel.com](mailto:komunikazioa@euskaltel.com)